

MAITASUNA

*Zure begi berdeek
lilurutzen naute,
zure ile marroiak
argitzen nau,
ta gure begiradak
aurkitzen direnean
eguneko momenturik
zoragarriena.*

*Zure ezpainak ikustean
burura etortzen zaidan gauza bakarra
muxukatzea da.
Zure kamisetak,
kolore txurikoak,
ta haien atzean
nire tatuajerik
gustokoenak.*

*Maite zaitudan moduan
uxatzen naiz,
maite zaitudan moduan
pozten naiz,
maite zaitudan moduan
desegiten naiz,
ta maite zaitudan moduan
hiltzen naiz.*

*Begirada batengatik
mundu bat,
irribarre batengatik
zeru bat,
hitz batengatik
izar bat,
ta besarkada batengatik
bizitza oso bat.*

*Disney pellicula bat bezala
amets bat,
istorioak kontatzean
berataz gogoratzea,
mundu guztia merezi du
norbait begiratzea
bizitzan gertatu zaion hoberena
izango balitz bezala.*